

IBAI, ITURBURU, URMAEL ETA URTEGIAK

DESKRIBAPENA

Gainazaleko ur kontinentalak Lurraren gainazalean dauden ur-gorputz iraunkorrak dira: ibaiak, errekaak, mendiarteko urak, aintzirak... Sare trinkoa eratzen dute, eta hainbat adarretan banatua.

Ur-etorri horiek batez ere ureztapenerako, abeltzaintzarako, giza kontsumorako, hidroelektrizitaterako, aisialdirako eta etxe eta industriako hondakinak isurtzeko erabiltzen dira.



Ur-jauzia Munguian

EUNIS HABITATAK





EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
C1	Ur geldi naturalak
C1.(X)	Ur geldi iraunkorrak
C1.1	Aintzira iraunkor oligotroficoak
C1.32	Ur eutrofico iraunkorretako <i>Lemna</i> -komunitateak
C1.33	Ur eutrofico iraunkorretako urpeko landaredia
C1.34	Ur eutrofico iraunkorretako ur gaineko landaredia
C1.6	Barnealdeko ur geldi behin-behinekoak
C1.66	Ur geldi gazikara tenporalak (kubeta endorreikoak)
C2	Korrontedun ibai eta errekek
C2.12	Iturburu petrifikante tofikoletako landaredia (trabertinoak)
C2.12.(X)	Landaredia urriko tobak eta trabertinoak
C2.3	Ur geldoetako landaredia
C2.4	Landaredia baskularrik gabeko estuario eta itsasadarrak
C3.2	Helofito handien formazioak
C3.21	<i>Phragmites australis</i> lezkadiak
C3.22	<i>Scirpus lacustris</i> formazioak
C3.23	<i>Typha spp</i> lezkadiak
C3.24	Karize handien eta/edo <i>Iris pseudacorus</i> -en formazioak
C3.26	<i>Phalaris arundinacea</i> -ren formazio trinkoak
C3.42	Aldizka urperatzen diren depresioetako komunitate anfiboak
C3.52	Aldizka urperatzen diren lohietako komunitateak
C3.55	Aldizka urperatzen den ibai-legarretako landaredia












BANAKETA

Unitate horrek 2.465 ha-ko azalera hartzen du; hau da, EAeko azaleraren % 0,34.



EMANDAKO ZERBITZUAK

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<p>Elikagaiak</p> 	<p>Ekosistema hauetan, elikagai ugari aurki daitezke (arrainak, karramarroak, igelak, etab.).</p>			<p>Aisialdiko jarduerak</p> 	<p>Ekosistema hauetan aisialdiko jarduera asko egin daitezke (piraguismoa, arrantza, bainatu, txalupan ibili, etab.)</p>
<p>Ur geza</p> 	<p>Ekosistema hauek ditugu, akuiferoekin batera, ur-hornidurarako iturri nagusiak, giza kontsumorako, abereei emateko, soroak ureztatzeko, industriarako, etab.</p>			<p>Jakintza zientifikoa</p> 	<p>Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak.</p>
		<p>Ura erregulatzea</p>	<p>Ekosistema hauei esker, prezipitazio eta urtzaldien ondorioz pilatutako ura bideratu eta ziklo hidrogikoa</p>	<p>Ingurumen-heziketa</p>	<p>Ekosistema hauetan, ingurumen-heziketarekin lotutako hainbat</p>

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
			erregulatzen da.		programa abiarazi dira: Ibialde izenekoa, esaterako.
				Jakituria tradizionala 	Ekosistema hauetako batzuetan, tradizionalki urarekin lotutako ohiturei eutsi zaie (burdinolei, ur-errotei, zerrategiei, etab.).
Energia berriztagarria 	Ura energia-iturri da: energia hidrauliko deritzo horri. Energia-mota hori erabiltzen da, hain zuzen, ur-errotetan, burdinoletan eta halakoetan.	Lurzorua emankortasuna 	Ekosistema hauetako urek mantenugai ugari arrastatzen dituzte, eta uholde-lautadetan nahiz ur-bazterretan metatzen.	Paisaien estetikaz gozatzea 	Ekosistema hauek gozamen-iturri ditugu, beren balio estetikoa dela tarteko.
Gene-gordailua 	Dibertsitate genetikoko handiko ekosistemak dira; espezie autoktonoak dira nagusi.	Naturako nahasketak erregulatzea 	Udaberriko prezipitazio eta urtzaldien ondorioz bertako uholde-lautadetan neurri gabe pilatutako ura bideratzen dute ekosistema hauek, uholderik egon ez dadin.	Identitate kulturala eta toki bateko izatearen sentipena 	Ekosistema hauekin estu lotuta daude gure folklorea eta kirolak.
Sendagai naturalak printzipio aktiboak 	Ur termalak eta lohi-bainuak har daitezke ekosistema hauetako batzuetan, osasuna hobetze aldera.	Kontrol biologikoa 	Habitat hauek oreka-egoeran daudenean, erraz erregula daitezke izurri eta inbasioak.		